

01

GENERO-IKUSPEGIRIK GABEKO ARRISKU "GENERIKOEN" EBALUAZIOAK

ALERTA-SEINALEAK



Egiaztatu azkar egoera hauetakoren bat gertatzen den:

- Ebaluazioa lanpostuen arteko bereizketarik gabeko dokumentu estandarra dirudi?
- Ez dago sexuka, adinaren arabera edo haurdunaldiaren/edoskitzearen arabera bereizitako daturik?
- Arrisku psikosozialak edo muskulu-eskeletikoak ia ez dira agertzen feminizatutako lanpostuetan? (gehienbat emakumeek egiten dituzten lanpostuak eta kulturalki emakumei lotzen zaizkienak)
- NBEak, tresnak edo kargak profil fisiko bakar baterako pentsatuta daude?

Seinale horiek adieraz dezakete arrisku-ebaluazioa ez dela nahikoa edo ez dagoela langile-taldera behar bezala egokitut.



ZER PROPOSATU ENPRESARI

Segurtasun eta Osasun Batzordean edo Lan-arriskuen Prebentzioko bileretan:

- Ebaluazioa genero-ikuspegiarekin berrikustea.
- Sexuaren eta adinaren arabera bereizitako datuak txertatzea.
- Lanpostu feminizatuak berariaz ebaluatzea.
- Arrisku muskulu-eskeletikoak eta psikosozialak berrikustea.
- NBEak, lanabesak eta lanpostuak pertsona bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara egokitzea.

Jarduera sindikal erabilgarria

- Gorabeherak eta langileen benetako adibideak jasotzea.
- Osasunari, eragozpenei edo kargei eragindako kalteek emakumei eta gizonei modu desberdinean eragiten dieten antzematea.
- Jarrerekin, erritmoekin, lanabeseekin edo NBEekin arazo errepikatuak dauden berrikustea.
- Arrisku-ebaluazioa, haren berrikuspenak eta erabilitako irizpideak eskatzea.
- Eraginpeko lanpostuen prebentzio-berrikusketa eskatzea.
- Proposamen zehatzak eramatea Segurtasun eta Osasun Batzordera: ebaluazio psikosoziala, berrikuspen ergonomikoa, NBEen egokitzapena edo antolaketa-aldaketak.
- Neurrien jarraipena egitea eta aktan jasota uztea.

"Pertsona guztientzako berdina" den ebaluazio batek antzeman gabeko arriskuak utz ditzake. Prebentzioa langile guztien benetako baldintzetara egokitu behar da.

ZER BERRIKUSI ETA ESKATU



Eskatzekoak:

- Arriskuen ebaluazioa eta berrikuspenak.
- Istripuei, bajei eta osasun-kalteei buruzko datuak, sexuaren arabera bereizita.
- Arrisku psikosozialen, ergonomiaren eta haurdunaldi/edoskitzearen ebaluazioak.
- Kargak, jarrerak eta erritmoak baloratzeko erabilitako irizpideak.

Egiaztatu ea:

- Zeregin errepikakorrek edo feminizatuak ikusezin bihurtzen diren.
- NBEak eta tresnak langile guztiei egokitzen zaizkien.
- Prebentzio-neurri zehatzak dauden.
- Enpresako langileen ordezkariak kontsulta egin zaien.



OINARRIZKO LEGEKO OINARRIA

- 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa:
 - 14. art. → babes eraginkorra
 - 16. art. → arriskuen ebaluazioa
 - 33. eta 36. art. → kontsulta eta sindikatuen parte-hartze.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 3/2007 Lege Organikoa.

